

OMENALDIA BIKTIMEI

Argitalpen hau omenaldia da genero-indarkeriari aurre egin dioten eta egun ere aurre egiten dioten emakumeei. Bereziki, ALICIA ARISTREGUI BERAZA Atarrabiako bizilaguna hartu nahi dugu gogoan, bikotekideak 2002an eraildakoak.

HOMENAJE A LAS VÍCTIMAS

Esta publicación es un homenaje a las mujeres que han enfrentado y enfrentan violencia de género, y en especial a ALICIA ARÍSTREGUI BERAZA, vecina de Villava asesinada por su pareja en 2002.

Emakumearen
kontrako Indarkeria
Ezabatzeko
Nazioarteko Eguna

**A-25
25-N**

Día Internacional
para la Eliminación
de la Violencia
contra la Mujer

AURKIBIDEA / ÍNDICE

- 02**
Zergatik Azaroaren 25ean?
¿Por qué el 25 de noviembre?
- 03**
Zer da emakumeen kontrako indarkeria?
¿Qué es violencia contra las mujeres?
- 04**
Genero-indarkeria Nafarroako legean
La violencia de género en la ley navarra
- 08**
Genero-indarkeriaren datuak
Los datos de la violencia de género
- 10**
Mugimendu feminista Atarrabian
El movimiento feminista en Villava
- 12**
Emakumeen eskura dauden baliabideak
Recursos a disposición de las mujeres
- 14**
Egizu bat A-25eko ekitaldiekin Atarrabian!
¡Súmate a los actos del 25-N en Villava!

HEMEN GAITUZU / SÍGUENOS EN:

 www.villava.es

 **Twitter** (municipal)

 **Facebook**
Berdintasuna-Igualdad

Diru laguntzailea / Subvenciona:





Mirabal ahizpak. / Las hermanas Mirabal.

25 ZERGATIK AZAROAREN 25 EAN?

1960ko azaroaren 25ean, Rafael Leónidas Trujilloren aginduz, Minerva, Patria eta María Teresa Mirabal ekintzaile politiko dominikarrak erail zituzten. Diktadoreak ez zion Minervari barkatu behin baino gehiagotan berari uko egin izana, ezta hiru ahizpek erregimenari kontra egin izana ere. Azaroaren 25 batez, Minerva, María Teresa eta Patria beren bikotekideak espetxean bisitatzetik zetozela, Trujilloren agindupeko agente talde batek ahizpak atxilotu, erail eta amildegian beheiti bota zituzten jeep batean, haien txoferrarekin batera, Rufino de la Cruz. Mirabal ahizpei "tximeletak" esaten zitzaaien, eta haien hilketak diktadorearen aurkako kontzientzia piztea bultzatu zuen.

1981ean, NBEk azaroaren 25a izendatu zuen Emakumearen kontrako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Eguna, hiru ahizpen erailketaren urtemuga baitzen.

25 ¿POR QUÉ EL 25 DE NOVIEMBRE?

El 25 de noviembre de 1960 las hermanas Minerva, Patria y María Teresa Mirabal, activistas políticas dominicanas, fueron asesinadas por orden de Rafael Leónidas Trujillo. El dictador no perdonó a Minerva que lo hubiera rechazado en varias ocasiones, ni tampoco la oposición de las tres hermanas frente al régimen. Un 25 de noviembre, cuando Minerva, María Teresa y Patria regresaban de una visita a sus parejas en la cárcel, fueron detenidas por un grupo de agentes de Trujillo que las asesinaron y las arrojaron por un barranco en un jeep junto a su chófer, Rufino de la Cruz. El asesinato de "las mariposas", nombre con el que se conocía a las hermanas Mirabal, contribuyó a despertar la conciencia entre la población contra el dictador.

En 1981, la ONU designó el 25 de noviembre, aniversario de su asesinato, como el Día Internacional de la Eliminación de la Violencia contra la Mujer.

ESPECIAL BEREZIA

AZAROA
2021
NOVIEMBRE

ATARRABIAKO
UDAL INFORMAZIO
ALDIZKARIA
BOLETÍN
DE INFORMACIÓN
MUNICIPAL
DE VILLAVA

A-25
25-N

Argitaratzailea / Edita:
Atarrabiako Udala /
Ayuntamiento de Villava
BERDINTASUN
ZERBITZUA / SERVICIO DE
IGUALDAD

Argazkia / Fotografía:
Antonio Olza
Itzulpena / Traducción:
Kike Díez de Ulzurrun
Egilea / Realiza:
Heda Comunicación

Inprimatzailea /
Imprime: Idazluma
Ale kopurua /
Tirada: 4.400
LG / D.L.:
NA 1223-1996
Doako banaketa /
Difusión gratuita



MIXTO
Papel procedente de fuentes responsables
Papera ingurumena zaindraz sortua
FSC® C021816

A-25 ATARRABIAN

Udalak A-25aren inguruan antolatutako jardueren berri eman zuen aldzikari honek 1999an. Zehazki, hainbat arlotako adituek emaniko solasaldi bat (abokatu bat, berdintasunean aditua zen pertsona bat, eta genero-indarkeriaren kontrako emakumeen plataformako ordezkari bat), eta tailer bat, indarkeria matxista zerk eragiten duen aztertzeko eta hezkuntzan zer-nolako eraldakuntzak behar diren zehazteko indarkeria horri aurre egite aldera. Orduz geroztik, Atarrabia etengabe aritu da lanean emakumeen kontrako indarkeria ezabatatzeko. 2007an, berdintasun teknikari bat kontratatze aurrerapauso nabarmena eman zuen eta, hasieratik beretik, indarkeria matxistaren kontrako gaia eman zitzaion, arlo hori landu zezan. Zerbitzuak jarduna koordinatzeko protokoloak lantzen ditu, eta halaber, barne prestakuntzak, diagnosiak, sentsibilizazio-kanpainak, jarduerak, etab.



2002

EL 25-N EN VILLAVA

El BIM del Ayuntamiento informaba ya en 1999 de actividades municipales organizadas en torno al 25-N. En concreto, una charla impartida por especialistas de distintos ámbitos (una abogada, una persona experta en igualdad y una representante de la plataforma de mujeres contra la violencia de género) y un taller en el que se abordaron las causas de la violencia machista y las transformaciones necesarias desde el ámbito de la educación para hacerle frente.

Desde entonces, Villava nunca ha dejado de trabajar para erradicar la violencia contra las mujeres. En 2007 dio el paso cualitativo de contratar una técnica de igualdad, a la que desde el primer momento se asignó, como una de sus áreas de trabajo, la de la violencia machista. El Servicio realiza protocolos de coordinación en la actuación, formaciones internas, diagnósticos, campañas de sensibilización, actividades, etc.

2005




2006



2007



2008



2010



2011



2013



2014



2015



2016



2017



2018



2019



LIBURUTEGIA

Emakumeen aurkako indarkeriaren gainean gehiago jakiteko irakurgaiak, guztiak liburutegian eskura

BIBLIOTECA

Lecturas para saber más sobre la violencia ejercida sobre la mujer disponibles en la Biblioteca

✓ DAVIS, ANGELA.

Emakumeak, arraza eta klasea.

✓ FEDERICI, Silvia. Caliban eta sorgina.

✓ BARBIJAPUTA. La chica miedosa que fingía ser valiente.



✓ LERNER, Gerda.

La creación del patriarcado.

✓ DONALDSON, Julia.

Lisipe. Pensamendu heterozuzena.

✓ BOSCH, Esperanza. La violencia contra las mujeres. El amor como coartada.

✓ AGIRREURRETA, Arantxa. Simone de Beauvoir. Emakume libre bat XX. Mendea.

ZER DA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA?

¿QUÉ ES VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES?

EMAKUMEAREN KONTRAKO INDARKERIA FORMA GUZTIAK EZABATZEARI BURUZKO ADIERAZPENA, NBE, 1993:

“Emakumeengan oinarritutako edozein indarkeria egintza da, emaitza moduan, emakumearentzat kalte edo sufrimendu fisikoa, sexuala edo psikologikoa duena edo izan dezakeena, eta baita, egintza horien mehatxuak, derrigortzea edo nahierara askatasunaz gabetzea, hori bizitza publikoan zein pribatuan gertatu”

DECLARACIÓN PARA LA ELIMINACIÓN DE TODAS LAS FORMAS DE VIOLENCIA CONTRA LA MUJER DE LA ONU, 1993:

“Todo acto de violencia basado en la pertenencia al sexo femenino que tenga o pueda tener como resultado un daño o sufrimiento físico, sexual o psicológico para la mujer, así como las amenazas de tales actos, la coacción o la privación arbitraria de la libertad, tanto si se producen en la vida pública como en la vida privada”

GIZONEK INDARKERIA PAIRATZEN DUTE ?

Bai, gizonek eta emakumeek indarkeria pairatzen dute, baina genero-indarkeria berariaz da emakumeen kontrako indarkeria, emakume izate hutsagatik. Gizonek bestelako indarkeriak pairatzen dituzte, baina ez genero-indarkeriarik.

Sí, hombres y mujeres sufren violencia, pero la violencia de género es una violencia específica contra las mujeres por el hecho de serlo. Los hombres sufren otros tipos de violencia, no violencia de género.

¿LOS HOMBRES SUFREN VIOLENCIA?

ZER DIOTE LEGEAK?

NAFARROAN, 14/2015 FORU LEGEA, APIRILAREN 10EKOA:

“Emakumeen kontrako indarkeria, emakume izaeraren diskriminazioan oinarritutakoa, giza eskubideen urraketa bat da”

Nafarroako lege hori **AITZINDARIA DA**, hainbat arrazoi dela medio:

1. Giza Eskubideen urraketa dela esaten du.
2. Estatuko legeak bikotekideak edo bikotekide ohiak bakarrik egindako indarkeria aurreikusten du (1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa).
3. Zuzeneko biktimatzat jotzen ditu indarkeriazko ingurunearen eraginpean dauden beste pertsona batzuk, hala nola seme-alabak.
4. Erreperazioa azpimarratzen du (banakakoa eta kolektiboa), baita oneratzea ere.
5. Emakumeak biktima izatetik biziraun duten emakumeak izatera pasatu dira; horrek beste leku batean kokatzen ditu, ahalduntze ikuspegiarekin bat.

EN NAVARRA, LA LEY FORAL DE 14/2015, DE 10 DE ABRIL:

“La violencia contra las mujeres basada en la discriminación por el hecho de ser mujer constituye una violación de los derechos humanos”

Esta ley navarra es **PIONERA** porque:

1. La contextualiza como una violación de los Derechos Humanos.
2. La ley estatal (Ley Orgánica 1/2004, de 28 de diciembre, de Medidas de Protección Integral contra la Violencia de Género) sólo contempla la violencia ejercida por pareja o expareja.
3. Considera víctimas directas a otras personas expuestas al entorno violento, como hijos e hijas.
4. Hace hincapié en la reparación (individual y colectiva) y en la recuperación.
5. Las mujeres pasan de ser víctimas a ser supervivientes, lo que las coloca en otro lugar atendiendo al enfoque del empoderamiento.

BIDEOTEKA

Emakumeen kontrako indarkeriaz gehiago jakiteko filmak

VIDEOTECA

Películas para saber más sobre la violencia ejercida sobre la mujer

- ✓ BOLLAIN, Icíar. **Te doy mis ojos**. España, 2003
- ✓ ABSA, Moussa Sène. **Madame Brouette**. Senegal, 2003
- ✓ LLOSA, Claudia. **La teta asustada**. Perú, 2009



HAURRAK-GAZTEAK / INFANTIL-JUVENIL

- ✓ ARMENDÁRIZ, Montxo. **No tengas miedo**. España, 2011
- ✓ BALAGUER, Javier. **Sólo mía**. España, 2001
- ✓ CARO, Niki. **En tierra de hombres**. EEUU, 2005

¿QUÉ DICEN LAS LEYES?

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA NAFARROAKO LEGEAN

Emakumeen kontrako indarkeria motak eta emakumeen kontrako indarkeriatzat jotzen diren agerpenak apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legean.

Koordinaziopean jarduteko protokoloa

2021a bukatu baino lehen **Atarrabiak II. Protokoloa sinatuko du emakumeen kontrako indarkeria dela-eta Atarrabian koordinaziopean jarduteko**. Funtsezko tresna da indarkeriazko egoeren aurrean eraginkortasunez jokatzeko. Tresna, orain, indarrean den legedira eguneratuko da (aurreko protokoloa 2013koa da).

Batetik, alde sinatzaile guztien konpromisoa adierazten du behar diren baldintzak sortzeko, biziraun duten emakumeak beren kontra egiten den indarkeriarik gabe bizi daitezen eta, era berean, emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasuna bultzatzeko. Eta bestetik, are gehiago hobetzen du emakumeenganako indarkeriari aurre egiteko arreta, zehaztasunez ezarrita nola jardun behar den esparru bakoitzean, kasurik gertatzen denean.

Protocolo para una actuación coordinada

Antes de finalizar 2021, Villava firmará el **II Protocolo para la actuación coordinada ante la violencia contra las mujeres en Villava-Atarrabia**, una herramienta clave para actuar con eficacia ante situaciones de violencia que se actualiza para adecuarse a la legislación vigente (el Protocolo anterior es de 2013).

Por un lado, expresa el compromiso de todas las partes firmantes por generar las condiciones para que las mujeres supervivientes vivan libres de la violencia que se ejerce contra ellas, así como de contribuir a la igualdad real y efectiva entre mujeres y hombres. Y por otro, sigue avanzando en el proceso de mejora en la atención contra la violencia hacia las mujeres, estableciendo con precisión cómo se debe actuar en cada ámbito cuando se produce un caso.

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA DA:

♥ **BIKOTEKIDEAK EDO BIKOTEKIDE OHIAK ERABILITAKO INDARKERIA:**

indarkeria fisikoa, psikologikoa, ekonomikoa edo sexuala, bikotekide duen edo izan duen gizonak edo berarekin antzeko harreman afektiboak izan dituenak, batera bizi direla nahiz ez, emakumearen kontra erabilitakoa, indarkeriazko ingurunean bizi diren haurrengan duen eragina barne hartuta.

Indarkeria fisikoa: emakumearen gorputzaren kontrako indarkeriazko edozein ekintza, kalte fisikoa edo mina eragiten duena edo eragin dezakeena.

Indarkeria psikologikoa: edozein jokabide, ahozkoa nahiz ez ahozkoa, emakumearengan oinaze, gutxiespen, bakartze motaren bat edo askatasuna mugatzea eragiten duena, hala nola mehatxuak, derrigortzeak, umilazioak edo laidoak, menpekotasuna eskatzea, jazarpena, hertsapena edo irainak.

Indarkeria ekonomikoa: emakumearen eta haren seme-alaben ongizate fisiko nahiz psikologikorako baliabideak nahita eta legez justifikatu gabe kentzea, edo bikotearen esparruan bienak diren baliabideak erabiltzeko diskriminazioa.

Indarkeria sexuala: onartu/baimendu gabeko edozein sexu ekintza, indarkeria, mehatxua, nagusikeria edo manipulazio emozionala tarteko direla, sexu harremanak erakutsi, ikusi edo izatera behartzea barne.

♥ **SEXU-INDARKERIAREN AGERPEN**

EZBERDINAK: emakume eta nesken kontrako sexu-indarkeriak bere baitan hartzen ditu sexu erasoa, sexu abusua, sexu jazarpena lanean edo hezkuntzan eta sexu abusua familian, komunitatean, hezkuntzan, lanean eta esparru publikoan.

♥ **FEMINIZIDIOA:** bikotean edo bikote ohian eginiko homizidioak, eta generoak eragindako diskriminazioan oinarritutako indarkeria erakusten duten beste krimen batzuk, hala nola sexu-indarkeriarekin loturiko hilketak, prostituzioaren eta emakumezkoen salerosketaren eremuko hilketak, ohoreagatiko hilketak, neskatoen infantizidioa eta ezkonsariagatiko hilketak.

♥ **EMAKUMEEN ETA NESKEN**

SALEROSKETA: emakumeak eta neskak erakarri, eramán, lekuz aldatu, hartu edo jasotzea, barne hartuta pertsona horien gaineko kontrola trukatzeko edo

eskualdatzea, mehatxuekin edo indarra edo bestelako hertsamen bideak erabiliz, bahituz, iruzur eginez, engainatuz, botere abusuaren bidez edo egoera ahul batez baliatuz, edo emakume edo nesken gaineko kontrola duen pertsonaren baimena lortzeko dirua edo onurak emanez edo jasoz, helburua delarik sexu-esplotazioa, laneo esplotazioa edo menpekotasunezko ezkontza.

♥ **PROSTITUZIOA ETA/EDO SEXU-**

ESPLITAZIOA: beste pertsona batzuekin sexu harremanak diru truk izatea. Finantza-irabaziak edo beste era batekoak lortzea besteak prostituzioan aritzetik (ekintza pornografikoak edo material pornografikoak egitea barne), hark onartua bada ere.

♥ **GAZTEEGITAN EZKONTZEA, EZKONTZA**

HITZARTUA EDO BEHARTUA: baimen libre eta erabatekorik izan ez duen ezkontza, hirugarrenen arteko akordio baten emaitza izan delako, emakumearen borondatea kontuan hartu gabe, edo mehatxupean edo bortxaz egiten delako, edo baimena emateko legez aurreikusitako adina baino gazteagoa delako emakumea.

♥ **EMAKUMEEN GENITALEN MUTILAZIOA:**

emakumearen genitalak osorik edo zati batean kentzea dakarren edo ekar dezakeen edo haietan lesioak eragiten dituen edozein prozedura, emakumearen edo neskaren baimena izanda ere, berariazkoa nahiz esan gabekoa.

♥ Emakumeen duintasuna, osotasuna edo askatasuna kaltetzen duen edo kalte dezakeen **BESTE EDOZEIN INDARKERIA MOTA**, nazioarteko itunetan, Espainiako Zigor Kodean edo Estatuko nahiz Foru Komunitateko araudian aurreikusirik dagoena.

LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES EN LA LEY NAVARRA

Tipos de violencia y manifestaciones consideradas violencia contra las mujeres en la Ley Foral de 14/2015, de 10 de abril.

ES VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES:

✓ LA VIOLENCIA EJERCIDA POR LA PAREJA O EXPAREJA:

la violencia física, psicológica, económica o sexual ejercida contra una mujer por el hombre que es o ha sido su cónyuge o con el que mantiene o ha mantenido relaciones similares de afectividad, con o sin convivencia, incluida su repercusión en los niños y las niñas que conviven en el entorno violento.

Violencia física: cualquier acto violento contra el cuerpo de la mujer, con resultado o riesgo de producir lesión física o daño.

Violencia psicológica: cualquier conducta, verbal o no verbal, como las amenazas, las coacciones, las humillaciones o vejaciones, la exigencia de sumisión, el acoso, la coerción o los insultos, que produzcan en la mujer algún tipo de sufrimiento, desvalorización, aislamiento o limitaciones de su ámbito de libertad.

Violencia económica: la privación intencionada, y no justificada legalmente, de recursos para el bienestar físico o psicológico de la mujer y de sus hijas e hijos o la discriminación en la disposición de los recursos compartidos en el ámbito de la convivencia de pareja.

Violencia sexual: cualquier acto de naturaleza sexual no consentido, en el que medie violencia, intimidación, prevalencia o manipulación emocional, incluida la exhibición, la observación y la imposición de relaciones sexuales.

✓ LAS DIFERENTES MANIFESTACIONES DE LA VIOLENCIA SEXUAL:

la violencia sexual contra mujeres y niñas incluye la agresión sexual, el abuso sexual, el acoso sexual en el ámbito laboral o educativo y el abuso sexual cometido en las esferas familiar, comunitaria, educativa, laboral, así como en el espacio público.

✓ EL FEMINICIDIO:

los homicidios cometidos en el ámbito de la pareja o expareja, así como otros crímenes que revelan que la base de la violencia es la discriminación por motivos de género, entendiendo por tales el asesinato vinculado a la violencia sexual, el asesinato en el ámbito de la prostitución y la trata de mujeres, los asesinatos por motivos de honor, el infanticidio de niñas y las muertes por motivos de dote.

✓ LA TRATA DE MUJERES Y NIÑAS:

la captación, transporte, traslado, acogimiento o recepción de mujeres o niñas, incluido el intercambio o la transferencia de control sobre estas personas, por medio de amenazas o uso de la fuerza u otras formas de coacción, el rapto, el fraude, el engaño, el abuso de poder o situación de vulnerabilidad, o mediante la entrega o recepción de pagos o beneficios para obtener el consentimiento de una persona que posea el control sobre las mujeres o niñas, con la finalidad de explotación sexual, laboral o matrimonio servil.

✓ LA PROSTITUCIÓN Y/O LA EXPLOTACIÓN SEXUAL:

la práctica de mantener relaciones sexuales con otras personas a cambio de dinero. Obtención de beneficios financieros o de otra índole con la explotación de el ejercicio de la prostitución ajena (incluidos actos pornográficos o la producción de material pornográfico), aun con su consentimiento.

✓ MATRIMONIO A EDAD TEMPRANA, MATRIMONIO CONCERTADO O FORZADO:

un matrimonio en el que no ha existido un consentimiento libre y pleno para su celebración, bien porque ha sido fruto de un acuerdo entre terceras personas, ajeno a la voluntad de la mujer, bien porque se celebra bajo condiciones de intimidación o violencia o porque no se ha alcanzado la edad prevista legalmente para otorgar dicho consentimiento.

✓ LA MUTILACIÓN GENITAL FEMENINA:

cualquier procedimiento que implique o pueda implicar una eliminación total o parcial de los genitales femeninos o produzca lesiones en los mismos, aunque exista consentimiento expreso o tácito de la mujer o la niña.

✓ CUALQUIER OTRA FORMA DE VIOLENCIA


que lesione o sea susceptible de lesionar la dignidad, la integridad o la libertad de las mujeres que se halle prevista en los tratados internacionales, en el Código Penal español o en la normativa estatal o foral.



EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN DATUAK

- ✓ Atarrabian emakumeen kontrako indarkeria izan da eta, gaur egun, bada. 2003tik hona izaniko salaketak dira horren erakusgarri.
- ✓ Salaketa faltsuak? Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak azterlana egin zuen 2016an, 500 salaketa oinarri harturik. Ondorioen arabera, % 0,0079ra bitarte izan zitezkeen faltsuak (hau da, izan zitezkeen; eta ez, bazirela, ez baitzen kontrakoa frogatzerik izan). Ez, salaketak ez dira faltsuak.
- ✓ Gainera, emakumearen aurkako indarkeriari buruzko azken inkesta handiaren arabera (2019), indarkeria pairatu duten emakumeen % 21,7k bakarrik salatzen dute zer gertatzen zaien.
- ✓ Hortaz, salaketa kopurua izebergaren punta baizik ez da; errealitate bat frogatzen du, baina ez digu ematen giza eskubideen urraketa horren egiazko argazkia.

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA SALAKETEN BILAKAERA ATARRABIAN:



EVOLUCIÓN DE LAS DENUNCIAS DE VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES EN VILLAVA

Iturria: Nafarroako Berdintasunerako Institutua. Nafarroako Gobernuak.
Fuente: Instituto Navarro para la Igualdad del Gobierno de Navarra

Indarkeria dugu bizikide, zenbaitetan ohartzen ez bagara ere...*

HAU GUZTIA INDARKERIA DA...


- ✓ neskak beldurraren kulturaren hezteak: ez zaitez kalean bakarrik ibili,
- ✓ bikotekideak zu isilaraztea, zure iritzia mespretxatzea,
- ✓ beste batzuek zure ordeaz erabakiak hartzea, zure gorputzaz iritzia ematea,
- ✓ zure lanbide gaitasuna ez aitortzea, soldata berdinekin ez ematea lan berdina eginik ere, kontraturik txarra beti zuri egokitzea, lehena izatea langabeziara joaten, mailaz igotzeko aukerarik ez iristea, inoiz ez aitortzea nahikoa dakizula, zure lankide gizonezkoek beti balorazio hobea jasotzea,

- ✓ beti gazte eta eder egon behar duzula tematzea,
- ✓ maite zaituztela pentsarazten dizutenean, baina egiazki kontrolatu egin nahi zaituzte,
- ✓ zure balioa zure gorputzaren sexu baliora mugatzea,
- ✓ ama derrigorrez izan behar duzula esatea,
- ✓ familia zuk bakarrik zaindu behar izatea,
- ✓ Adorerik ez izaten ikasi izana, eta ikasi ere ezer ez esaten, zalantzak izaten, atzeko jarlekuan gelditzen...

ZERGATIK DA INDARKERIA

- ✓ hondagarria da: emakumeen askatasuna, autoestimua eta garapena hondatzen ditu.
- ✓ hilgarria da: bizipoza hiltzen du, baita bizitzaren erabateko gozamena ere.
- ✓ menderagarria da: emakumeak menperatu, zapaldu eta baztertzen ditu

* Testu hau Nafarroako udalek eta mankomunitateek elkarrekin egindako kanpainan agertu zen, 2014ko azaroaren 25aren karira.

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA
SALAKETEN BILAKAERA
NAFARROANEVOLUCIÓN DE LAS DENUNCIAS DE VIOLENCIA
CONTRA LAS MUJERES EN NAVARRA

Iturria: Nafarroako Berdintasunerako Institutua. Nafarroako Gobernua.
Fuente: Instituto Navarro para la Igualdad del Gobierno de Navarra

LOS DATOS
DE LA VIOLENCIA
CONTRAS LAS
MUJERES

- ✓ En Villava ha habido y hay violencia contra las mujeres y una muestra de ello son las denuncias recogidas desde 2003 hasta la actualidad.
- ✓ ¿Denuncias falsas? El Consejo Superior del Poder Judicial realizó en 2016 un estudio a partir de 500 denuncias y concluyó que hasta un 0,0079 % podrían ser falsas (que podrían ser, no que lo fuesen, porque no se pudo acreditar lo contrario). No, LAS DENUNCIAS NO SON FALSAS.
- ✓ Además, según la última Macroencuesta de violencia contra la mujer, de 2019, solo el 21,7 % de las mujeres que ha sufrido violencia lo denuncia.

Convivimos con violencia
aunque a veces no la reconocemos...

ES VIOLENCIA...

- ✓ que crezcas con miedo a andar sola por la calle,
- ✓ que tu pareja te mande callar, que desprecie tus opiniones,
- ✓ que otros decidan por ti, que opinen sobre tu cuerpo,
- ✓ que no reconozcan tu capacidad profesional, que no te paguen igual por trabajos de igual valor, que te toque siempre el peor contrato, que seas la primera en ir al paro, que no te lleguen las oportunidades de ascender, que nunca se reconozca que sabes lo suficiente, que valoren más siempre a tus compañeros varones,
- ✓ que se empeñen en que debes estar siempre joven y estupenda,
- ✓ que te hagan pensar que te quieren cuando en realidad te quieren controlar,
- ✓ que reduzcan tu valor al valor sexual de tu cuerpo,
- ✓ que se espere de ti que cumplas con ser madre,
- ✓ que debas cuidar tú sola de la familia,
- ✓ que hayas aprendido a no atreverte, a no decir, a dudar, a quedarte en el asiento de atrás...

ES VIOLENCIA
PORQUE...

- ✓ destruye: destruye la libertad, la autoestima y el desarrollo de las mujeres.
- ✓ mata: mata la ilusión y el pleno disfrute de la vida.
- ✓ subordina: somete, oprime y discrimina a las mujeres.

* Texto de la campaña conjunta compartida por municipios y mancomunidades navarros en torno al 25 de noviembre de 2014.

MUGIMENDU FEMINISTA ETA EMAKUMEENA ATARRABIAN

Emakume elkarte eta taldeek eta/edo talde feministek funtsezko eginkizuna betetzen dute berdintasunerako bidean eta emakumeen kontrako indarkeria errotik desagerrarazteko. Horiek guztiak ere borroka horren ardatz izan dira Atarrabian, aspalditik hona, eta egun ere badira. Atarrabiako Udalak eta, Udaleko Berdintasun Zerbitzuak, bereziki, eskerrak eman nahi dizkiete orrialdeon bidez herriko elkarte eta taldeei (baita, emakume taldea eta/edo feminista ez diren arren, helburuekin bat datozeinei ere), lan nekagaitza egin eta konpromiso tinkoa erakutsi baitute bi xede hauek lortze aldera: Atarrabia berdinzalea eta emakumeen kontrako indarkeriarik gabea erdieste. Bide horretan ari gara.

Foto / Argazkia: Diario de Noticias



IRATI ELKARTEA (1990-2013)

20 urtean baino gehiagoan, elkarteak Atarrabiako emakumeen genero-berdintasuna, garapen pertsonala eta emantzipazioa bultzatu zituen. Hamaika kultur ikastaro, solasaldi, jarduerak solidario eta kultur bisitaldi antolatuta zituen, bai eta ikastaro aunitz ere, sexologiak, psikologiak, medikuntza naturalak, eta beste asko. Urtetan, Emakumearen Eguna ospatu zuen eta beste talde batzuekin nahiz Udalarekin aritu zen lankidetzan kultur ekimen askotan edo berdintasunari lotutakoetan.

ASOCIACIÓN IRATI (1990-2013)

Asociación que durante más de 20 años apostó por la igualdad de género, el desarrollo personal y la emancipación de las mujeres de Villava. Organizó infinidad de cursos culturales, charlas, actividades solidarias, visitas culturales y cursos de sexología, psicología o medicina natural, entre otros muchos. Celebró durante años el Día de la Mujer y colaboró con otros colectivos y con el Ayuntamiento en numerosas iniciativas de tipo cultural o relacionadas con la igualdad.

MANDRAKE EMAKUME ELKARTEA (2015- GAUR EGUN)

Elkarteak genero-berdintasunean eta emakumeen ahalduz lanetan dihardu, ekofeminismoaren inguruko ikastaro, tailer eta jardueren bidez (baratza, sendabelarrak, aromaterapia, etab.). "Abril letras mil" ekimena ere sustatu dute, hau da, nafar emakume idazleen inguruko zikloa. Era berean, lankidetzan aritzen da beste talde batzuekin eta Udalarekin, hainbat jarduerak ekitalditan, hala nola Martxoaren 8an, A-25ean eta herriko jaietako emakume egunean.



BIZITZAK EHUNTZEN (2018-2020)

Atarrabiako mugimendu feministari ikusgaitasuna emateko asmoz sortu zen. Herriko beste emakume askorekin batera, hainbat borroka eta dinamika bultzatu eta koordinatu zituen, hala nola 2018ko eta 2019ko greba feministak, A-25ak edota eraso matxisten aurkako erantzunak. Horrez gain, solasaldiak eta tailerrak antolatuta zituen. Gaur egun, herriko emakume gazteenak ari dira lekukoa hartzen.

BIZITZAK EHUNTZEN (2018-2020)

Nace con el objetivo de hacer visible el movimiento feminista en Atarrabia, dinamizando y coordinando junto con otras muchísimas mujeres del pueblo diferentes luchas y dinámicas, como por ejemplo las huelgas feministas del 8-M de 2018 y 2019, los 25-N o las respuestas ante las agresiones machistas. Además, también ha organizado diferentes charlas y talleres. En la actualidad, van tomando relevo las mujeres más jóvenes del pueblo.

ASOCIACIÓN DE MUJERES MANDRAKE (2015- ACTUALIDAD)

Asociación dedicada a promover la igualdad de género y el empoderamiento de las mujeres a través de curso, talleres y actividades en torno al Ecofeminismo (huerta, plantas medicinales, aromaterapia, etc.). Promotoras también de "Abril letras mil", un ciclo con escritoras navarras. También colabora con otros colectivos y con el Ayuntamiento en actividades y eventos, tales como el 8 de marzo, el 25N y el Día de la mujer en las fiestas patronales.



BANG (2015- GAUR EGUN)

BANG Atarrabiako Neska gazteen talde feminista da. Neska* gazte izateagatik bizi ditugun zapalkuntzen aurrean erantzun kolektiboa ematen dugu herrian. Sistema kapitalista heteropatriarkalak eragindako biolentzien aurka gu ahaldundu eta babesten gaituen espazio segurua eraikitzen gabiltza ahizpatasunetik. Argi dugulako sareta soilik lortuko dugula gizartea eta gure herria eraldatzea, batera Atarrabiako neska gazteak!

BANG (2019-ACTUALIDAD)

BANG es un grupo feminista de chicas jóvenes de Villava. Respondemos colectivamente a las opresiones que vivimos por ser chicas jóvenes. Desde la sororidad estamos construyendo un espacio seguro que nos alienta y protege contra las violencias provocadas por un sistema capitalista heteropatriarcal. Porque tenemos claro que sólo en red conseguiremos transformar la sociedad y nuestro país, ¡todas a una chicas jóvenes de Villava!

Foto / Argazkia: Diario de Noticias



ATARRABIAKO FEMINISTAK (2008-GAUR EGUN)

Atarrabiako feministak taldea 2008an sortu zen Atarrabiako emakume sare bat osatzeko asmoz. Urte osoan barrena antolatzen dituzte jarduerak, baita festetan ere, eta aldarrikapenak landu, hala Azaroaren 25aren nola Martxoaren 8aren inguruan. Emakume Feministen Batzarra elikatu eta sendotzea da haren eginkizun nagusietako bat.

ATARRABIAKO FEMINISTAK (2008-ACTUALIDAD)

Atarrabiako feministak nació en el año 2008 con el objetivo de crear una red de mujeres de Villava. Durante este tiempo ha organizado actividades a lo largo del año y en fiestas, y planteado reivindicaciones tanto en torno al 25 de noviembre como al 8 de marzo. Uno de sus cometidos principales es alimentar y reforzar la Asamblea de Mujeres Feministas.

EL MOVIMIENTO FEMINISTA Y DE MUJERES EN VILLAVA

Las asociaciones y colectivos de mujeres y/o feministas desempeñan un papel fundamental en el camino de la igualdad y de la erradicación de la violencia ejercida contra las mujeres.

También en Villava han sido y son protagonistas de esta lucha desde hace muchos años.

El Ayuntamiento de Villava y el Servicio Municipal de Igualdad, en particular, quieren desde estas páginas agradecer a asociaciones y colectivos locales (también a los que, aún no siendo de mujeres y/o feministas, comparten estos objetivos) su labor incansable y firme compromiso con este doble propósito, alcanzar una Villava igualitaria y libre de violencia contra las mujeres. Estamos en ese camino.



Indarkeriari aurre egiten dioten edo informazioa nahi duten Atarrabiako emakumeek udal baliabideak dituzte eskura, bai eta beste baliabide batzuk ere. 016 telefonoak 24 orduetan erantzuten du urteko 365 egunetan eta ez du fakturan aztarnarik uzten.

ATARRABIAKO EMAKUMEEN ESKURA DIREN BALIABIDEAK

LARRIALDI
EGOERA:

112

Las vecinas de Villava que enfrentan violencia o quieren información pueden acudir a los recursos municipales y a otros recursos a su disposición. El teléfono 016 atiende las 24 horas los 365 días y no deja rastro en la factura de teléfono.

RECURSOS A DISPOSICIÓN DE LAS MUJERES DE VILLAVA

SITUACIÓN
DE URGENCIA:

112

GIZARTE ESPARRUA

- ♥ **GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMEI ARRETA INTEGRALA EMATEKO ZERBITZUA IRUNERRIAN ETA IPARRALDEAN**
Arreta espezializatua eskaintzen die emakumeei eta seme-alabei, gizarte, psikologia eta hezkuntza arloan nahiz arlo judizialean, Emakumeen Arreta Juridikorako Zerbitzuaren bitartez, hitzordua aurrez hartuta.
Etxaburua k., 27, 31013 Berrioazar
Harremana: 608 31 35 53 / eaiv.comarca@pauma.es
Ordutegia: astelehenetik ostegunera, 8:00etatik 19:00etara eta ostiralean 8:00etatik 17:00etara.
- ♥ **ATARRABIA, EZKABARTE ETA OLAIBARKO ZERBITZUAK**
Genero-indarkeriako biktimak artatu eta babesteko Telefono Zerbitzuaren Kudeaketa (ATENPRO) eta Atarrabiako Emakumeei Laguntza Juridikoa emateko Zerbitzuaren kudeaketa.
Atarrabiako Udaletxeko bigarren solairua
Karrika Nagusia, 22, 31610 Atarrabia
Harremana: 948130734 – 660437510
ssbase@villava.es
Ordutegia: astelehenetik ostiralerara, 8:30etik 14:30era

OSASUN ESPARRUA

- ♥ **ATARRABIAKO OSASUN ETXEA**
Miguel Indurain plaza z.g., 31610 Atarrabia
Harremana: 948-335022/75 csvillav@cfnavarra.es
Ordutegia: astelehenetik ostiralerara, 8:00etatik 20:00etara.
- ♥ **OSASUN MENTALEKO ZENTROA**
Iturriko kalea z.b.g., behea
31600 Burlata
Harremana: 948 13 61 19
Ordutegia: astelehenetik ostiralerara, 8:00etatik 15:00etara

ESPARRU JURIDIKOA ETA JUDIZIALA

- ♥ **EMAKUMEEI LAGUNTZA JURIDIKOA EMATEKO ZERBITZUA. ATARRABIA, EZKABARTE ETA OLAIBARKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUKO MANKOMUNITATEA**
Karrika Nagusia, 22. Atarrabia
Harremana: 948130734 (aurrez hitzordua hartuta)
- ♥ **DELITUAREN BIKTIMAK ARTATZEKO BULEGOA (SAVD)**
Iruñeko Justizia Jauregia.
Elío epailearen plaza 1, behea. Iruñea
Harremana: 848 42 33 76, 848 42 13 87 eta 848 42 76 71 (telefono bidezko eta aurrez aurreko aholkularitza, hitzordua aurrez hartuta)

POLIZIA ESPARRUA (Arreta 24 orduetan)

- ♥ **ATARRABIAKO UDALTZAINGOA**
Karrika Nagusia 22 31610 Atarrabia
Tel.: 608 97 30 30 (24 orduetan)
- ♥ **FORUZAINGOA**
Teiliturri kalea, z.g. Iruñea
Laguntzarako brigada: 848 42 64 03

ÁMBITO SOCIAL

- ♥ **SERVICIO DE ATENCIÓN INTEGRAL A VÍCTIMAS DE VIOLENCIA DE GÉNERO DE LA COMARCA DE PAMPLONA Y ZONA NORTE**
Ofrece una atención especializada de ámbito social, psicológico, educativo y jurídico a través del Servicio de Atención Jurídica a la Mujer (SAM) a mujeres e hijas e hijos. Con cita previa.
C/ Etxaburua, 27
31013 Berrioazar
Contacto: 608 31 35 53 / eaiv.comarca@pauma.es
Horario: lunes a jueves de 8:00 a 19:00 y viernes de 8:00 a 17:00
- ♥ **SERVICIOS SOCIALES DE VILLAVA, EZKABARTE Y OLAIBAR**
Gestión del Servicio Telefónico de Atención y Protección a las víctimas de la violencia de género (ATENPRO) y del Servicio de Atención Jurídica a Mujeres de Villava-Atarrabia. Con cita previa.
Segunda planta del Ayuntamiento de Villava
Calle Mayor 22
31610 Villava
Contacto: 948130734 – 660437510
ssbase@villava.es
Horario: lunes a viernes de 8:30 a 14:30

ÁMBITO DE LA SALUD

- ♥ **CENTRO DE SALUD DE VILLAVA**
Plaza Miguel Indurain, s/n, 31610 Villava
Contacto: 948-335022/75 csvillav@cfnavarra.es
Horario: lunes a viernes de 8:00 a 20:00
- ♥ **CENTRO DE SALUD MENTAL**
Calle de la Fuente s/n Bajo
31600 Burlada
Contacto: 948 13 61 19
Horario: lunes a viernes de 08:00 a 15:00

ÁMBITO JURÍDICO Y JUDICIAL

- ♥ **SERVICIO DE ATENCIÓN JURÍDICA A MUJERES DE LA MANCOMUNIDAD DE SERVICIO SOCIAL DE BASE DE VILLAVA, EZKABARTE Y OLAIBAR**
C/ Mayor 22, Villava
Contacto: 948130734 (con cita previa)
- ♥ **OFICINA DE ATENCIÓN A LAS VÍCTIMAS DEL DELITO (SAVD)**
Palacio de Justicia de Pamplona.
Plaza Juez Elío 1, bajo Pamplona
Contacto: 848 42 33 76, 848 42 13 87 y 848 42 76 71 (asesoramiento telefónico y presencial con cita previa)


ÁMBITO POLICIAL (Atención 24 horas)

- ♥ **POLICÍA MUNICIPAL DE VILLAVA**
Calle Mayor 22 31610 Villava-Atarrabia
Tfno: 608 97 30 30 (24 horas)
- ♥ **POLICÍA FORAL**
Fuente de la Teja s/n
Pamplona
Brigada Asistencial: 848 42 64 03

OROITZEN AL ZARA KANPAINA HAUETAZ ?

¿RECUERDAS
ESTAS
CAMPAÑAS Y
ACCIONES?



A-25
EGITARAU

Aurten, Nafarroako toki entitateek “Indarkeria bakarria hamaika modu” goiburua aukeratu dute Emakumearen Aurkako Indarkeria Ezabatze Nazioarteko Egunerako, elkarrekin abiarazi duten kanpainari begira. 25ean berean, arratsaldean, jendea goiburu horren atzetik joanen da manifestazioan, Iruñeko karriketan barna, urtero ohi denez. Eta urtero bezala, halaber, Atarrabiako Udalak eta herriko elkarteek azaroaren 25en inguruko jarduerak egingen dituzte.




♥ **ARGAZKI ERAKUSKETA**
“Errepublikako emakumeak historia egiten”
DONES EN ACCIÓN
EMAKUME ELKARTEA
Emakume Elkartea
Azaroaren 18a arte
Kultur Etxea
Garai hartako argazki eta kartelen erakusketaren bidez omenaldia egin nahi izan zaie Errepublika garaian emakumeen eskubideen alde lan eta borroka egindako emakume idazle, maistra, artista, liburuzain, pentsalari eta ekintzaileei.



♥ **ERAKUSKETA BIRTUAL ELKARRERAGILEA**
“NOOR. Argia ematen duten emakumeak”
UNRWA, NBeko AGENTZIA
ERREFUXIATU
PALESTINARRENTZAT
Azaroak 2-19
Gazteleku
Antolatzaileak: Berdintasun eta Gazteria udal zerbitzuak
Erakusketak Palestinako zortzi emakume errefuxiaturen bizitza azaltzen digu. Argia ematen duten emakume horiek inspirazio-iturri dira, guztiak ere ahaldunduak eta erresilienteak, eta beren argiarekin aurre egiten diote okupazioari, blokeoari eta sistema patriarkalari.

♥ **SOLASALDIA**
Errefuxiatu palestinar bat mintzatuko da
Azaroak 4, 19:00etan,
Gazteleku
Antolatzaileak: Berdintasun eta Gazteria udal zerbitzuak

♥ **ESCAPE ROOM**
Giza eginkizuna Gazan
Azaroak 12, Gazteleku
Antolatzaileak: Berdintasun eta Gazteria udal zerbitzuak
Gazte Bizi eta Gazte Bizi Plus gazte programetan ari direnentzat



♥ **BAKARRIZKETA**
No sólo duelen los golpes
PAMELA PALENCIANO
Azaroak 10 eta 11, Atarrabia pilotalekuan
Ikastetxeetako bigarren hezkuntzako ikasleentzat (eskola orduetan)
Antolatzaileak: Udaleko Berdintasun Zerbitzua
Pamela Palenciano aktore, komunikatzaile eta ekintzaile feministak kontatuko digu nola bizi izan zuen bere lehenbiziko bikote-harremana eta nola jo zuen harreman horrek indarkeriarantz denboraren joanean, hari eta sei urteren buruan amaiera eman zion arte. Proiektua, hasieran, argazki-erakusketa bat izan zen; gero, indarkeriari aurrea hartzeko tailerra bigarren hezkuntzako ikastetxeendako, eta orain, berriz, antzezlanaren itxura hartuta agertzen zaigu.

♥ **HITZALDIA**
Emakumeak II. Errepublikan: lehen emakume herritarrek eta, aldi berean, betirako adingabekoak
GEMMA PIEROLA NARVARTE
Azaroak 17, 19:30, Kultur Etxean
Antolatzaileak: Udaleko Kultur Zerbitzua
II. Errepublikak hainbat arlotan (hezkuntzan, lanean, legeetan) emakumei buruz planteaturiko gaiak izanen dira solasgai; halaber, noraino iritsi zen proposamenen edukia, eta zer arazori egin behar izan zien aurre.



♥ **ZINE-FORUMA**
Las 13 rosas
EMILIO MARTÍNEZ LÁZARO
Azaroak 24, 18:30, Kultur Etxean, María Castejón Leuzak dinamizatua
Organiza: Udaleko Kultura Zerbitzua
Espainiako Gerra Zibila (1936-1939) bukatu berrikan, auzitegi militar batek heriotza-zigorra ezarri zien neska gazte batzuei, egin ez zuten delitu bat leporatuta. Gerra bukatu eta hilabetera atxiloturik, galdeketa latzak pairatu zituzten eta Ventas Madrilgo espetxean giltzapetu zituzten. Neskek pentsatzen zuten urte batzuk soilik emanen zituztela espetxean, baina Erregimenaren aurka

matxinatu izana leporatu zieten, Juventudes Socialistas Unificadas taldea berrantolatzeagatik eta Francoren aurkako atentatu bat antolatzeagatik. 1939ko abuztuaren 5eko goizaldean fusilatu zituzten.

♥ **A25 EKITALDI INSTITUZIONALA**
Azaroak 25, 17:00etan, Udaletxe plazatik abiatuta, martxa Alizia Aristregui Berazaren omenezko oroitarriraino joanen da.

♥ **MANIFESTAZIOA IRUÑEAN**
INDARKERIA SEXISTAREN AURKAKO NAFARROAKO EMAKUME PLATAFORMAK DEITUA
Azaroak 25, 20:00etan, Iruñeko Udaletxe plaza

♥ **ANTZERKI TAILERRA**
Genero indarkeriari aurrea hartzea, Gazte Bizi eta Gazte Bizi Plus programetan ari diren gazteentzat
Azaroak 27, 18:30, Gazteleku
Antolatzaileak: Berdintasun eta Gazteria udal zerbitzuak
♥ **ANTZERKIA**
Antonia
JAVIER LIÑERA ETA ÉKOMA TEATRO
Azaroak 28, 19:30ean, Kultur Etxean
Antolatzaileak: Udaleko Kultura Zerbitzua

25-N
PROGRAMA

Este año el lema elegido para la campaña puesta en marcha conjuntamente por entidades locales navarras para conmemorar el Día Internacional contra la violencia hacia las mujeres, es "Una violencia, mil formas". El mismo día 25 por la tarde este lema encabezará la manifestación que todos los años se celebra por las calles de Pamplona. Y como todos los años también, el Ayuntamiento de Villava y asociaciones del pueblo desarrollarán actividades en torno al 25 de noviembre.



EXPOSICIÓN FOTOGRÁFICA

"Mujeres de la República haciendo historia"

ASOCIACIÓN DE MUJERES DONES EN ACCIÓN
Hasta el 18 de noviembre
Casa de Cultura
Organiza: Servicio municipal de Igualdad

Esta muestra de fotografías y carteles de la época es un homenaje a la vida y trayectoria de mujeres escritoras, maestras, artistas, bibliotecarias, intelectuales y activistas que en tiempos de la República trabajaron y lucharon por los derechos de las mujeres.



EXPOSICIÓN VIRTUAL INTERACTIVA

"NOOR. Mujeres que iluminan"

UNRWA, AGENCIA DE LA ONU PARA PERSONAS REFUGIADAS PALESTINAS
2-19 de noviembre
Gazteleku

Organizan: Servicios municipales de Igualdad y Juventud
Esta muestra nos acerca las vidas de ocho mujeres refugiadas de Palestina. Mujeres que iluminan e inspiran, empoderadas y resilientes, que con su luz hacen frente a la ocupación, al bloqueo y al sistema patriarcal.

CHARLA COLOQUIO
Intervención de una persona refugiada palestina
4 de noviembre, 19:00,
Gazteleku
Organizan: Servicios municipales de Igualdad y Juventud

ESCAPE ROOM

Misión humanitaria en Gaza

12 de noviembre, Gazteleku
Organizan: Servicios municipales de Igualdad y Juventud
Para participantes en los programas juveniles Gazte Bizi y Gazte Bizi Plus.



MONÓLOGO

No sólo duelen los golpes

PAMELA PALENCIANO
10 y 11 de noviembre, en el Frontón Atarrabia.
Dirigido a alumnado de Secundaria de los centros educativos (horario escolar)
Organiza: Servicio municipal de Igualdad
Lo que la actriz, comunicadora y activista feminista Pamela Palenciano cuenta en este montaje es cómo vivió su primera relación de noviazgo y cómo tornó en violenta con el paso del tiempo, hasta que le puso fin tras seis años. Este proyecto comenzó siendo una exposición fotográfica, evolucionó a un taller de prevención de violencia para centros escolares de Secundaria y ahora se presenta como una obra teatral.

CONFERENCIA

Mujeres en la II República: primeras ciudadanas a la vez que eternas menores

GEMMA PIEROLA NARVARTE
17 de noviembre a las 19:30 en la Casa de Cultura
Organiza: Servicio municipal de Cultura
Abordará temas relacionados con la educación, el trabajo y los cambios legislativos que planteaba la II República en relación a las mujeres, y cuál fue el alcance de las propuestas y los problemas a los que tuvo que enfrentarse.



CINE-FÓRUM

Las 13 rosas
EMILIO MARTÍNEZ LÁZARO
24 de noviembre, 18:30 en la Casa de Cultura dinamizado por María Castejón Leurza
Organiza: Servicio municipal de Cultura
Recién terminada la Guerra Civil Española (1936-1939), un Tribunal Militar condena a muerte a unas jóvenes por un delito que no habían cometido. Detenidas un mes después de acabar la guerra, sufrieron duros interrogatorios y fueron encarceladas en la prisión madrileña de Ventas. Ellas pensaban que sólo pasarían unos años en la cárcel, pero fueron acusadas de un delito de rebelión contra el Régimen por reorganizar la Juventudes

Socialistas Unificadas y por organizar un atentado contra Franco. Fueron fusiladas en la madrugada del 5 de agosto de 1939.

ACTO INSTITUCIONAL 25N
25 de noviembre, 17:00, desde la plaza del Ayuntamiento La marcha discurrirá hasta el monolito en recuerdo de Alicia Aristegui Beraza

MANIFESTACIÓN EN PAMPLONA
CONVOCADA POR LA PLATAFORMA DE MUJERES CONTRA LA VIOLENCIA SEXISTA DE NAVARRA
25 de noviembre, 20:00, Plaza del Ayuntamiento de Pamplona

TALLER DE TEATRO
Prevención de violencia de género dirigido a jóvenes participantes en los programas Gazte Bizi y Gazte Bizi Plus

27 de noviembre, 18:30, Gazteleku
Organizan: Servicios municipales de Juventud e Igualdad

TEATRO
Antonia
JAVIER LIÑERA Y ÉKOMA
TEATRO
28 de noviembre, 19:30, en la Casa de Cultura
Organiza: Servicio municipal de Cultura

INDARKERIA BAKARRA HAMAİKA MODU

UNA VIOLENCIA MIL FORMAS

AZAROAK 25

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA

25 DE NOVIEMBRE

DÍA INTERNACIONAL CONTRA LA VIOLENCIA

HACIA LAS MUJERES



LG 114 229-2021

